

ANGELUKO IKASLEAK.

ZORTZIGARREN ERAKASPENA

OSOGUNEKO ERAKASKERA.

1996-97 IKASURTEA.

① ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1. Elhur egun hartan zer arizan ziren Oihanaldekoak?
2. Idazlariek nola azalbatzen dauku esloie?
3. Zertako harreko ziren haurreak?

②

MARIA ZAHARRA. 2

PIARRRES

Luze iduritu zitzaizoten egun hura Oihanaldekoeri. Arratscan halere, lanak oro egin ondoan, elgarrekin goxo goxo goxatu ziren guziak, sukalde beroan, josteta maitectan haur ttikiak, eskuarazko irakurtzectan bertzeak.

Untzitegi<sup>s</sup> pullitean, gopor-xuriek dir dir egiten zuten, eta gopor arrik airatzerat abian, zazpi koloretako oilar batzu, beren buztan händiak harro harroa dilindan, kukurukuka ari bezala zitzaizkoten Gantxumeri Frantxari eta Xanctari.

Sukalde xokoan, lau zangoren gainean xut xuta, bethi norapeit abian balitz bezala, orena han zagon, bere kopa luzearen barnean, zurezko kapelu oxkatua buruaren gainean, jendeeri eta gauzeri, orori begi handi batetarik begira. Bigarren begi handi batetarik, beheraxago, harat hurat bazabilan kobre hori borobil bat, tik tak, tik tak, urhats berean bethi. Hainbertze urthe hetan, zonbat oren goxo, zonbat oren ilhun ez zituen joak Oihanaldean, deusetaz durduzatu gabe sekulan! Etxeek arima bat balute? Eta etxeke arima hura han balitz, kopa luze haren barnean?... Edo hobeki, orenaren urhats ilhun hek Jainkoarenganat joan etxeke jendeen hurratsak balire, mixteriozko eskaler batzueri behera beren bethiko etxearen ikustera berriz heldu diren jendeen urhatsak?... Bethi, Gantxume, orenaren aintzinean landatua, han zagon orai, Frantxa eta Xaneta bere ondotik, norbeit edo zerbeit beharbada handik atheratzen ikusiren zutelako beldurrarekin...

Eta hain xuxen, makilekaska bat atheran entzunik, orenaren gernetik mamu bat jali balitzaito bezenbat harritu ziren haur gaixoak, eta Xuriko, hortzak kirrikan, jauzi batean athera zen mahain azpitik. Bainan, ordukotz, boz samin samin bat ari zitzaizoten guzieri:

"-Gau on, jendeak, gau on!" eta makila baten gainean bi plegu egina, sukaldean sartu zen Azkenbordako Maria, eskale zaharra; eta, bere etxean izan balitz bezen deskantsuan, joana zen jada supazter-xoko xokoan jartzera, bi eskuak suari berehala... Eta, Mariaren eskalapointeko elhurra su-harri beroak kuxean urtharazirik, bi ur etxeke jali ziren haren zangoetarik.

Pour mémoire - 2ème forme (si j'étais)

Ni izan	banindadi	=	si j'étais
Hi	banindadi	=	si tu étais
Zu	bazinte		
H	baladi		
G	bazinte		
Z	bazinrezte		
H	balite		etc.

. Eventualité éloignée - éventuel futur.

③ ADITZ IKASKUNTZA.

- |                         |                                    |
|-------------------------|------------------------------------|
| 31. Iduritu zitzaizoten | 32 Abian balitz                    |
| 33. Bazabilan           | 34 Jali balitzaito.                |
| 31. IZAN.               | Régime indirect. Indic. Imparfait. |

Hura zen = il était

Hura (lui)	zitzaizoten	(à moi)	= il m'était
"	zitzaizun	(à vous)	= il vous était
"	zitzaion	(à lui)	= il lui était
"	zitzaigun	(à nous)	= il nous était
"	zitzaizuen	(à vous)	= il vous était
"	(zitzaizoten) zitzaion	(à eux)	= il leur était

32 IZAN - Eventuels (suppositifs) 1ère et 2ème forme

(si j'étais) 1ère forme

Ni izaiten	banintz	=	si j'étais
Hi	banintz	=	si tu étais
Zu	bazine	=	si vous étiez
Hura	balitz	=	s'il était
G	bazine	=	si nous étions
Zuek	bazinrezte	=	si vous étiez
Hek	balire	=	s'ils étaient.

(si j'avais été) 3ème forme

Ni izan	banintz	=	si j'avais été
Hi	banintz	=	si tu avais été
Zu	bazine	=	si vous aviez été
Hura	balitz	=	
G	bazine	=	
Zuek	bazinrezte	=	
Hek	balire	=	etc.